

Funtsezko jarduerak

Gure enpresan hainbat jarduera egin beharko lirateke negozio-ereduak funtziona dezan.

Gure funtsezko jarduerak **plataformako edo sareko jarduerak** izango dira; hau da, plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea. Plataformako edo sareko jardueren zati bat enpresa bat kontratatuz kudeatuko dugu. Enpresa hau aplikazioa sortzeaz, informazioa sartzaz eta hau berritzeaz arduratuko da.

Jarduera batzuk kanpoko enpresa baten esku utziko ditugu, hauek arlo honetan adituak direlako eta lan txukunagoa eta kalitate hobea batekin burutuko dutelako zeregina. Honek arrakasta handiago bat edukitzera bideratuko gaitu, beraiekin lan egingo dugulako bezeroen nahiak asetzeko. Gainera, honek aplikazio moderno, erabilgarri eta eraginkor bat izatea ahalbidetuko digu.

Beste zatiaz gu arduratuko gara. Gure jarduerak bezeroekin (supermerkatu eta jatetxeekin) kontaktuan jartzea, hauen informazioa lortzea eta hau aplikazioan jartzeko laburtzea izango dira. Gainera, guk aukeratuko dugu zein izango den aplikazioaren diseinua eta hau sortzen duen enpresari helaraziko diogu. Gainera, beste bezeroekin (aplikazioaren erabiltzaileekin) kontaktua mantentzeaz (hauen kexak, iradokizunak... erantzuten) arduratuko gara.

Gainera, astero aplikazioa sortzen duen enpresarekin elkartuko gara plataformako edo sareko jarduera hauek kudeatzeko eta hobekuntzak edota aldaketak eskatzeko. Horrela bermatuko dugu enpresa honen lana bezeroen nahiei egokitzen zaiela.